

## Hondarrean, oroimena gelditzen da

(In the end, memory is what remains)

Lertxundi, Anjel

Teresita Enea. 20800 Zarautz

BIBLID [ISBN: 978-84-8419-212-1 (2010); 119-132]

---

Ustu ezin zan ganbara deitu zion Antonio Zabalak Txirritaren bertso eta pasadizoekin osatu zuen liburuari. Hustu ezin den ganbara da memoria bai individuala bai kolektiboa, hustu ezin den ganbara da iraganeko oroitzapenean multzoa. Kolektibitate baten oroitzapenen gordelekurik zabal oparoenak –ez bakarrik– hizkuntza da. Herri baten senak sortua, herri horren emaitza aberatsenak gorde dizkigu hizkuntzak. Ikuspuntu hortatik abiatuz, herri baten hizkuntzak herriaren memoria eta etorkizunean duen zereginaz hausnartzea izango du helburu ponentziak.

*Giltza-Hitzak: Memoria. Tradizioa. Euskara. Identitatea. Transmisioa. Etorkizuna.*

Antonio Zabala tituló el libro que recoge los bertsos y anécdotas de Txirrita con el nombre de Ustu ezin zan ganbara (*El almacén invencible*). Dicho almacén viene a ser la memoria tanto individual como colectiva; es decir, el conjunto de los recuerdos del pasado. El almacén más amplio y generoso –mas no el único– de los recuerdos de una colectividad es su lengua, que tiene su origen en el instinto popular y recoge los frutos más significativos. Partiendo desde ese punto de vista, la ponencia tiene por objeto reflexionar sobre el papel que la lengua de un pueblo desempeña en su memoria y en su futuro.

*Palabras Clave: Memoria. Tradición. Euskera. Identidad. Transmisión. Futuro.*

Le livre contenant les bertsos et les expériences personnelles du bertsolari Txirrita fut intitulé Ustu ezin zan ganbara (*La chambre impossible de vider*) par son auteur Antonio Zabala. Les mémoires individuelles et collectives ne sont qu'une chambre impossible de vider ; l'ensemble des souvenirs du passé n'est qu'une chambre impossible de vider. La langue est le dépôt le plus copieux des souvenirs d'une collectivité ; il n'est pourtant pas le seul. Fondée par la sagesse d'un peuple, la langue a recueilli les fruits les plus riches. De ce point de vue, le but de cet exposé sera de réfléchir à l'influence de la langue sur la mémoire et sur l'avenir d'un peuple.

*Mots Clés : Mémoire. Tradition. Basque. Identité. Transmission. Futur.*

**Eusko Ikaskuntzako Lehendakariak**, Jose Maria Muñoa jaunak kongresu honen aurkezpenean adierazi zuen bezala, “elkartasuna, justizia soziala eta jasangarritasuna ipar gisako balioak dira guretzat, hazkundea, kontsumoa eta lehiakortasuna ez direlako, berez, garapen benetako eta iraunkor baten bermeak”. Oso hitz zuzenak dira.

**Einsteinek zioen:** “Uste dut praktikotasuna eta efikazia helburu dituen heziketa intelektual soilak balore etikoen ahuldura ekarri duela”. Eta aurrerago: “Kultura etikorik gabe, humanitateak ez du salbamenik”.

Zeintzuk dira, ordea, balore horiek, nola etorri bat kultura etikoaren eduki eta ezaugarrietan? Bada, jatorriez eta identitateaz gaindi, gizaki guztiok berdintzen gaituen dimentsio bat: gure giza izaera da. Humanismo greziarrak, Europak munduari egin dion oparirik ederrenak, eremu horretan bilatu zituen berdinak berdinari zor dizkion begirunea eta solidaritatea.

Esku solidario batean kabitzen da askatasuna, dio Claudio Rodríguezek poema batean, baina non bilatu esku solidarioa luzatzeko arrazoia gizakiok berdintzen gaituen –zu eta ni berdin egiten gaituen– dimentsio horretan ez bada?

**Behin batez Konfuzioren ikasle batzuk** maisuarengana joan ziren, eta galdetu zioten:

– Nondik hasiko zinateke herri bat gobernatzen?

Eta pentsalariak erantzun zien:

– Hizkuntza hobetuko nuke.

Ikasleek harriturik begiratu zioten, uste baitzuten erantzunak ez zuela zer ikusirik galdetu ziotenarekin. Pentsatzen zuten: “Hizkuntza hobetzeak zer ote dakarkio nazioaren gobernamentuari?”.

Konfuziok beharrezko argibide guztiak eman zizkien:

– Hizkuntza zehaztasunik gabea baldin bada, ez da pentsatzen dena esaten.

Esaten dena ez bada pentsatzen den bera, ez dago benetako lanik.

Benetako lanik gabe, ezin loratuko dira artea eta morala.

Benetako arterik eta moralik gabe, ez dago justiziarik.

Justiziarik gabe, nazioak ez du jakingo nora jo: sutan dagoen ontzi bat izango da, jitoan eta nora ezean dabilena.

Horra, bada, zergatik hobetu behar duzuen hizkuntza. Ez zaitezte arbitrarioak izan hitzekin. Nazio bat gobernatzea baldin bada auzia, hizkuntzaren zehaztasuna da garrantzitsuena.

**Modu askotara esplikatu daiteke** Europaren historia. Moduetako bat, utopia-  
ren eta pragmatismoaren arteko lehia kontatzea izan liteke. Erasmusek *anitzasun-  
nean bat* izango zen Europa bat nahi zuen. Napoleonek, ordea, kanoikadez erai-  
ki nahi zuen. Bata –utopia– zein bestea –indarra– pultsio bazter ezinak dira  
gaurko Europa ulertzeko.

Etenik gabeko porrota baten kronika da historia, gizakion izaera mugatuaren  
eta mugarik gabeko utopiaren arteko nahiak eta ezinak bizi duten lehia kontatzen  
duen memoranduma. Haatik, historia aurrera egiteko ispilua omen da: bidega-  
bekeriak baztertzeko eta nondik norako zuzenak markatzen laguntzen digun  
memoria selektiboa, alegia. Aurrera egingo badugu, atzera begiratu behar. Zer  
da, ordea, aurrera egitea eta zer atzera begiratzea? Erronka berri handi askoren  
aurrean gaude. Nola hitz egin, ordea, berrikuntzaz, nola jakin zer berrituko  
dugun, esku artean daukagunari begiratu gabe, erabaki gabe zer dugun zaharki-  
tua, zer dugun baztergarri, zer dugun iragankorra, zer dugun guztiz asmatu beha-  
rrekoa?

Horretarako, ordea, irizpideak behar. Iragana aztertzeke eta aurrera begira-  
tzeko, epaitu egin behar zer den on, zer komenigarri. Zeintzuk dira, ordea, horre-  
tarako irizpideak; zer eta nola epaituko dugu? Irizpide nagusiak pragmatikoak  
izango ditugu, krematistikoak, utilitarioak?

Iraganak erakusten du geroa nola dantzatu, hala esan dezakegu guk ere esa-  
era zahar ezaguna egokitu eta gero.

Baina ez pentsa atzera begiratze hutsa aski denik. Historiaren ezagutzak ez  
du etorkizuna txertatzen: historiak ez du kontzientziarik, ez du moralezko izaera-  
rik. Gu gara kontzientziadunak, gu gara moraldunak izanik, etorkizuna batera edo  
bestera moldatuko dugunak. Baterara edo: irizpide batzuekin edo besteekin, ale-  
gia.

Irizpideak aipatzerakoan, gure izate etikoa hezi eta lantzearen premiaz ari  
naiz, etorkizuna eginkizun zuzentasunezkoa izatea nahi badugu, behintzat.

**Bizitzarako prestatu behar du eskolak.** Baina, lana eta lan mundua baino  
zerbait gehiago da bizitza. Zorionez. Baina bizitza eta lana berdinuko bagenitu  
ere: lana ez da produkzio hutsa. Torlojoak egiten dituen gizaki bat da, torlojoak  
egiten robot bat jartzen duena ere gizaki bat da, beti dago gizaki bat lanaren  
motor, eta gizaki bat dagoen tokian beti egongo da prestakuntza moralaren pre-  
mia; bestela, etekinen pragmatika ateak ixten joango da etorkizunari, humanita-  
teari berari.

**Europarrak gara eta Europan izango gara.** Betetzeko dagoen amets bat  
baino areago, eredu eta faktore askoren mosaikoa dugu Europa. Protesta egin  
genezake, eta ez zaigu arrazoirik falta horretarako, ikusten ari garen gero eta  
Europa monetarioago baten kausaz. Hainbat ekonomiarik lege unibertsal aldae-

zinak balitu bezalako izate abstraktu pitzadurarik gabetzat dauka merkatua: itsu-gor-mutua, kontzientziarik gabea, eta, ondorioz, erantzukizunik ere gabea. Estatuek kontrola ezin dezakeen baina estatuen etorkizuna baldintza dezakeen egitate abstraktuen itxura hartu du merkatuak, egitate ia metafisiko halako baten traza; haren mekanismoen ulertuntza ez dago hiritar arrunten esku, hala sinestaraizi zaigu, antzua baita ulertzeko gai ez garen zerbait ulertzen saiatzea. Esanekoak nahi gaitu merkatuak, jarrera kritikoa kontsumituta dugun kontsumitzaile.

Globalizazioa edo aurrerakuntza teknologikoen edo informazio-sarea ere merkatuarena bezalako itxura ukiezin, ikusezin, kontrolaezin, gida ezin halako batez ageri zaizkigu: ideologiazko egitaterik gabe eta baloreen galbahetik libre. Estatuek, gainera, gero eta zailagoa izango dute haien kontrola. Nork du, nori eskatu behar zaio baten zein bestearen izenean egindako bidegabekeriaren erantzukizuna?

Merkatariak nolako, merkatua ere halako, alderantzizko formula sofisma bat da. Hargatik, merkatuaren izaera halabeharrezkoa onartu ordez, hobe da merkatariei aurpegi jakina jartzea, merkatuaren legeak eragindako bidegabekeriaren biktimek ere aurpegi jakinak dituzte-eta (krisiarekin ikusten ari gara). Globalizazioaileek ere aurpegiak dituzte eta aurpegiak, halaber, globalizazioaren biktimek. Teknologoek ere aurpegiak dituzte eta aurrerapen teknologikoen biktimek ere bai. Baina gu baloreei bizkar emanda bizi bagara, eta aurrerabideak ezin baditugu baloreen talaiatik aztertu, zer egin efikaziaren eta aurrerabidearen aldrean sakrifikatutako biktimen aurrean, aukera gutxien dituztenen alde?

**Baloreekiko harrera faltak** eta balorerik gabeko jarduerak bizi gaitu. Premiak eta baloreak aurrerabidearen aurkariak dira, nonbait; gizabanakoaren barne-muinetara zokoratu da etika. Edo, gehienera ere, alferrikakoa da etika baliatzea harik eta etekinak gauzatu arte.

Baina hortxe dago, hain zuzen, engainuaren muina: etekinak bezain epaigarriak edo epaigarriagoak dira abiapuntua eta metodoa; gestioaren oinarrian edo horren garapenean dagoen filosofiaren zuzenak etekina ziurtatzen ez badu ere, garapenaren eta gestioaren estiloa markatzen du filosofia horrek. Bestela, etekinen zain egonda, beti berandu da ezer zuzendu ahal izateko.

**Hargatik guztiagatik**, gure harremanen sare etiko bat behar dugu gizakiok. Ez naiz nor balore horiek zeintzuk diren esateko, baina memoriaz hitz egin nahi nizueke orain, iraganari begiratu, oraina prestatu eta etorkizunera begiratze behar-beharrezkoa dugun memoriaz. Horretarako, ordea, kontu konkretu eta zehatzetan barna ibiliko naiz, eta kontu zehatz horiek nik lantzen dudana esparruarekin, kulturarekin dute zerikusia.

**Geiser bakarrik bizi da**, adinean aurrera doa, memoria galtzeko beldurra du. Halakorik gerta ez dakion, Geiser, Max Frisch-en *Gizona Holozenoan agertu zen*

nobelako protagonista, hainbat kontu deigarri apuntatzen hasten da paper-muturretan. Irakurtzen, hausnartzen eta gogoratzen dituenak apuntatzen ditu paperetan. Gero, etxeko hormetan jartzen ditu. Begi-bistan izan nahi ditu, ahanzturari lehia irabazteko. Pixkana-pixkana, ordea, gero eta arrotzagoak egiten zaizkio hormetako idazkiak.

Goiz batez begiak arranpalo gelditzen zaizkio paperon aurrean, eta galdera lazgarria ateratzen zaio:

– Nork idatzi ditu paper-mutur hauek guztiak?

***Itzala utzi duela*** esan ohi dugu euskaldunok jendearen memorian arrastoa utzi duen norbaitengatik. Urrutia bertsolariak: “Hirurogeita bi urte dira Xenpelar jauna il zala, haren anima mundutik joan zan hemen utzita itzala”.

“Memoriak egin eta memoriara ekarri” esaten zaio gogoratzeari. Aresti poetak *Maldan behera*: “Zure memoriak egin dituzte gaur elizan”.

“Memoria galtzea” ez da soilik ez gogoratzea: bada ondoeza egitea ere. Balentin Barandiaranek: “Elizara zijoala memoria galdu zitzaion, ziplo erori zan”. “Memoratzea”, aldiz, kordea berreskuratzea da, nor bere onera itzultzea. “Orotarikoak” ez baitakar adibiderik, ausart nadin ni neu adibide bat osatzen: “Memoratu zenean, ‘zer gertatu zait?, ez nago hilda, ezta?’ galdetu zuen”.

“Memoria askatzea” esan ohi zaio erdi ahaztuak genituenak gogoratzeari. Frantzisko Iturzaetak: “Jaunak zertako egin giñuzen, memoria ondo askatu!”.

“Ganbara” deitzen diogu buruari, memoriaren gordailuari. *Ustu ezin zan ganbara* titulua eman zion Antonio Zabalak Txirritaren bertso eta pasadizoekin osatu zuen liburuari.

Hustu ezin den ganbara da memoria bai indibiduala bai kolektiboa, hustu ezin den ganbara da iraganeko oroitzapenen multzoa: gure herriak bere memoriaren ganbaran gorde ditu han-hemen batu ditudan esapide guztiok.

Ganbara da bihitegia, bildu diren fruituak lehortzen eta belarra ontzen jartzen den lekua.

Ganbara da ukitu sentimental handiko gauzak, txikitako jostailuak, baztertu nahi ez ditugun familiako oroitzapenak, sekula gehiago erabiliko ez ditugun bada-ezpadako trepetak gordetzen ditugun tokia.

Ganbara bada gordelekua eta ezkutalekua ere.

Ganbara bada gauzak galtzeko lekua ere: behin ganbaran gorde genituen pitxi batzuk ez ditugu, auskalo zergatik, sekula aurkitzen. Halatsu behin ganbaran gorde genituen oroitzapen batzuekin ere.

Eta, azkenik, ganbara bada oroitzapenen moztarro-lekua ere: denboraren patinak zahartu, itxuraldatu egiten ditu han gorde genituen objektuak.

**Euskal Herrian hiru hizkuntza ditugu**, gaztelania, frantsesa eta euskara. Hiru egitate kultural desberdin, bakoitza bere ezaugarri eta erlazio-sare desberdinekin. Gainera –berrikuntzaren alorrekin zerikusi zuzena du– ingelesaren aldeko apustu garbia egin du gure sistema akademikoak.

Lau hizkuntzen artean ahulena denari buruz mintzatuko naiz orain, baina euskarari buruz esango ditudan gorabehera askok berdin balio du beste hizkuntzei aplikatzeko ere.

Eta, ororen gainetik, bideratu nahi dugun berrikuntza hizkuntzen bidez seinalatu, aztertu, bideratu eta zehaztuko dugu, eta, horretarako, hizkuntzen arteko harmonia garatu beharko dugu justizian eta askatasunean oinarritua.

**Freudek zioen** hitzei garrantzirik ez ematetik hasten dela gertakizunei ere garrantzia kentzeko prozesua.

Hizkuntza ez da soilik errealitatea interpretatzen laguntzen digun tresna edo bitartekari bat: errealitatearen parte bat da. Errealitateak, ulertua eta adierazia izan dadin, hizkuntzako korrespondentzia bat du. Eta korrespondentzia hori dagoelako, hizkuntzak, usteltzen badugu, usteldu egiten gaitu. Duintzen badugu, duintasuna itzultzen digu ordainetan.

**Hizkuntza da** komunitate batek eraiki duen bere bizitzari buruzko dokumenturik osatuena, ugariena, sakonena. Ez dago beste deus, komunitate horren berri gehiago emango duenik.

Esaten badut “erromanizazioa”, hor aurkituko ditut hizkuntzan txertatuta erromanizazioaren ondorioak, euskarak garai luze hartan izan zituen, onartu zituen ekarriak, egin zituen egokipenak, berriro zituen sailak. Lexikoak, morfosintaxiak, aditzak, deklinabideak sekulako informazio zabal zorrotza ematen didate garai hartaz. Gauza bera esan dezaket Erdi Aroaz. Euskarak Erdi Aroa bizi izan zuen, Erdi Aroa deskribatu zuen, Erdi Aroari buruzko oroitzapen-sare zabala utzi zuen hizkuntzan. Gauza bera esan liteke euskaldunok historian zehar bizi izan ditugun esperientzia historikoez, etikaren eboluzioaz, etnografiaz, kulturaz, munduari buruzko ikuspegi orokorraz.

Erkidego baten memoriak eraiki duen gordailurik behinena, erkidego horren bizitzaz mintzatzen zaigun dokumenturik argigarri eta harrigarriena da hizkuntza.

**Kale egin dut** espresioak bola-jokora garamatza: bola makilen artean pasatzen denean makila bakar bat jo gabe, kale egin du bolak. Hortik, espresioa. Eguneroko espresio horrek gure arbasoen aisialdira garamatza.

Nork lotzen du gai baten *hausnarketa* behi baten hausnarrarekin? Zerriak ezkur bila dabiltzanean, lurraren azterrean edo aztarrean ari dira, baina gaur nork lotzen du zerrien azterra eta kongresu honetan aurkeztu diren *azterketak*?

Ai, ene, ai ene, hogeita laugarrena San Bartolome? Festa bateko kanta bihurtu dugu, baina *ai, ene* horiek ez dira San Bartolome gau lazgarri hartako hugonoteen oihartzun garbiak?

Doministiku egin dugula esaten dugunean, garai bateko “Dominus tecum” jakulatoria dago horren atzean. Inorengatik “garitan jaiotako umea” dela esaten dugunean, garia guretzat ondasun nagusia zen garaiak deskribatzen dizkigu. “Bizi-alarguna” espresioan, berriz, dibortziorik gabeko gizarte itxi baten aztarnak aurkitzen ditugu. Lukainka jaten dugunean “lucanica modo” egindako hestebe-tea ahoratzen dugu. Ni txikia nintzenez nire aitak egiten zuen oporrak ez zuen gaurko adierarik, eguraldi txarragatik ohikoa ez zen beste lanen bat egin beharra baizik. Ez dago Transilvaniaraino joan beharrik Drakularen bila, gure ipuinetan daukagu: Drakulak nesken lepoa nola, gure Basa Jaunek nesken hatza zupatzen zuen. Urtzi izenak Aimery Picaud-ek “Deum vocant Urtzia” hartara garamatza, eta Picaud-en esaldiak, berriz, Urtzi gurtzen genuen garai zaharagoetara. Euskaldun bati “euskaldun berri” deitzen diogunean, ze diskurtso klase dago espresioaren atzean?

Amesten dugun berrikuntza benetakoa izango da berrikuntza horrek hizkuntzan ere benetako arrastoak uzten baditu, hizkuntza garai berrien ispilu eta gordailu baldin bada.

**Hizkuntza gure historiaren parte nagusia da**, gure memoria da, gure izaerari buruzko dokumenturik bikainena da. Hizkuntza, definizioz, eraikuntza sozial eta anitza da, mendeetan eta kolore desberdinetako jendeak osatutako egitate kultural eta komunikatzailea. Hizkuntza da gu ondoen deskribatzen gaituen eta mundua ikusteko gure modua gehien zehazten duen ekintza kulturala.

Hizkuntza batek, gainera, kohesio halako bat ekartzen du hizkuntza horretako hiztunen artean, baina kohesio hori kulturala da, ez ideologiazkoa.

Politikoez transbertsaltasunaz hitz egiten dutenean, nago ikuspegi soziologikoa edo ideologikoa edo ekonomikoa bakarrik hartzen dutela aintzat, inoiz ez kulturala. Baina ni gatzelaniaz ari naizenean, nire erreferente kultural zuzen-zuzenak espainolak dira, eta horrek Suso monasteriotik Pablo Nerudaren Isla Negra-raino narama, Don Kixoteren Mantxan txango egin eta gero. Frantsesez ari naizenean, hizkuntzaren oihartzunek ez naramate Frantziara bakarrik: banaramate Kanadara edo Algeriara ere. Euskaraz ari naizenean, erreferenteak euskaldunak ditut, eta hizkuntzak Eihalarreko plazatik Jon Miranderen Parisa edo Ameriketara dauden euskal artzainengana narama.

Bada besterik ere: euskal hiztuna naizen aldetik, nik baditut espainiera guztiz arrotza zaien hiztun-kideak. Itxaro Bordak baditu frantsesa guztiz arrotza zaien hiztun-kideak.

Kontua da hizkuntzen arteko elkarbizitzaz hitz egiterakoan, erreferentzia kultural desberdinen arteko bizitzaz ere hitz egin behar dugula. Ereku propioez eta eremu konpartituez.

Hizkuntza dugu gure lehen eremu kultural librea, nire kasuan, euskara. Euskarari euste soilarekin kontribuzio sekulakoa egiten ari gara kultura unibertsalari. Baita amesten dugun berrikuntzari ere. Beste modu batera esanda: euskaldunon memoria historikoari eusteko modu nagusia euskarari eustea da. Bat historiarekin, bat memoriarekin, baina bat etorkizunarekin ere.

### **Eliot poetak 'Kulturaren definiziorako oharrak' liburuan esaten du:**

"Kultura" terminoak herri baten ekintza eta interes guztiak biltzen ditu: Derbya; Henley-ko errege estropada eta Cowesekoa, abuztuaren hamabiko festa, kopako finala, galgoen lasterketak, apustuak egiteko makinak, dardoak, Wensleidle-ko gazta, aza egosia eta txikitua, erremolatxa ozpinetan, hemeretzigarren mendeko eliz zaharrak eta Elgarren musika. Irakurleak bere zerrenda propioa osa dezake.

Eliotek kulturaren izaera elitistan sinesten zuen, baina, ohartzen bazarete, Eliot elitistak kultura-modu elitistaren adibide bakarra eskaintzen digu bere zerrendan: Elgarren musikarena. Horren segidan, kulturaren maila asko daudela esango digu Eliotek. "Irakurleak bere zerrenda propioa osa dezake".

**"Besoetan neraman alabatxoa.** Lo zegoen, bere burua nire sorbaldan atsedendurik. Deusek ere ez zion loa galarazten. Ez zuen, artean, memoriarik".

Patrick Modianoaren *Familiako liburua* nobelako azken hitzak dira.

Alabatxoa besoetan. Eta lo. Aitaren sorbaldak mundu ondo egin baten babesa eskaintzen dio umeari. Haurrak ez du oraindik mundua ordenatzeko beharrik, ez baitu artean memoriarik.

**Hanselek eta Gretelek** ogi-papurak botatzen dituzte basoan, etxera galdu gabe itzuli ahal izateko. Teseok Ariadnaren hariari esker lortu zuen Minotauroaren labirintotik irteeta. Gure artzainek mezuak uzten zituzten Nevadako basoetako arboletan idatzita. John Sturgesen *Ihesaldi handia* filmean, iheslariek bidegurutze bateko bide-seinaleak aldatzen dituzte naziak nahasteko.

Askotan ez dugu ezagunetik ezezagunera, erosotasunetik arriskura, argitik ilunera txango egin beste erremediorik. Bizitzaren legea da. Seinaleen, arrasto identifikagarrien, kode eta itun komunen premia dugu bakarka zein taldean bizi, bidean galdu gabe ibili eta onik itzultzeko.

Markak utzi zizkigutelako, zailagoa dugu galtzea. Idazlea naizen aldetik, markei denboraren hautsa kentzea izan liteke nire lanbidearen ezaugarri bat...



**Itzulera baten historia** titulua eman zion Martin Ugaldek Venezuelatik Euskal Herrira itzultzeko erabakiaren kontakizunari.

Itzulera, nora? Etxera, aberrira, Edenera, lehenera, haurtzarora, ama-hizkuntzara, iturrietara, edo itzulera etorkizunera?

Nolanahi ere den: idazlea hara eta hona ibili da bizitzako baso urrunetan, baina ez zaio han-hemen ogi-papurak botatzea ahaztu. Ez galtzeko, nondik eta nola itzuli jakiteko. Seinaleak identifikatzen jakin behar.

Erbeste luzea bizitzen ari da idazlea, baina ez du itzulera baztertzen. Hori buruan duelarik, eta irakurketen, gutunen, oroitzapenen ogi-papurrei esker, idazlea lotuta dago jaioterriarekin, oroi-minak ama-hizkuntzaren sustraietan dauka finkatuta aingura nagusia. Ez da, ordea, aski, eta itzultzen diren guztien tragedia bera biziko du Ugaldek ere: bazekien ez zituela alde egin zuen garaiko giroa, herria, hizkuntza, idealak aurkituko; aurrez zekien ez zuela behin atzean utzi zue-na utzitako moduan aurkituko.

Sorpresa ez dio gertatu den aldaketak berak eragingo, aldaketak hartu duen bideak baizik. Gauzak ez dira amestu dituen bezala gertatu, norabidea ez da bere gustukoa. Handiegia da espero zuenaren eta ikusten ari denaren arteko kontrastea. Itzuleraren ontziak ez du gogobeteko portura ekarri, eta Ugaldek garbi ikusi du gertatu dena: urrun zegoen bitartean denbora ez da gelditu, bere lana egiten segitu du. Aspaldi utzi zuen portu maitea denboraren haizeek aldatu egin dute, ez da jada bere itxaropenak amesten zuen babesleku huraxe.

Itzuli zenean, ordea, Ugalde ez zen otzandu. Besteak beste, hori ere zor diogu.

**Afrikako aholkulari, azti, apaiz, belagile, sorginak...**

Mendeetako jakituria transmititzea dute lanbide: zorrotz bizitzen eta lasai hiltzen irakasten diete nork bere tribuko haur-hurrei. Analfabetoak dira azti gehienak, baina memoriak betetzen du guretzat letrek betetzen duten lana.

Horregatik diotso Senghor poeta afrikarrak Ernesto Sabatori:

“Zuentzat pentsalarien eta poeten biblioteka baten erreketak bezalako tragedia da guretzat azti horietako baten heriotza”.

Sabatori sekulakoa iruditu zitzaion Senghorren esana. Euskalduna naizelako izango da, baina Senghor poetarenak ez nau Sabato bezala harritzen. Altxorak eta altxorak joaten ari zaizkigu erremediorik gabe. Gure biblioteka txukunetan apalxo gehixeago bagenitu sikiera gure hainbat *analfabeto* adinekoren testigantzak gordetzeko...

**Nire ametsak.** Hain kontu pertsonalak izanda ere –agian pertsonalenak–, badakit ez naizela batera orijinala nire ilusio, fantasia, amesgaiztoetan. Nire ametsak, zuen ametsak, denon ametsak: berdintsuak dira. Orduan? Zer dago ametsen atzean, nor da fantasian sortzailea? Yeats-ek “great memory” bati buruz jardun zuen, arbasoengandik omen datorkigun irudien pilaketa eta errepi- kapen etengabe batez, eta irudipena dut memoria orokor, memoria erraldoi, memoria kolektibo horrek baduela zerikusirik nire ametsen orijinaltasun faltarekin. Baina zeintzuk dira arbaso horiek? Nondik dator, nola osatu da (existitzen bada) nire amets hain pertsonalak arrunt bilakatzen dituen “memoria handia”?

**Espanian denbora asko pasatu da** gerratik eta gerraostetik hona –izugarrikeria latzenak egin ziren garaitik hona–, baina ez dira damu publikoaren kasurik ezagutzen ez gerra-garaian egindako krimenengatik, ezta frankismoak praktikaturako errepresalia latzengatik ere militarren eta epaileen parte-hartze aktiboarekin [...]. Elizak ere ez du damurik erakutsi, salbuespen batzuk kenduta, gerra garaian bando garailearekin bat egiteagatik, ezta diktadura garaian ere bere isiltasun konplizeagatik (Paloma Aguilar Fernández, *Políticas de la memoria, memorias de la política*).

**Orain urte batzuk,** Berlingen izan nintzen Gernikako bonbardaketari buruzko jardunaldi batzuetan, izugarrikeria hark euskal poesian izan duen oihartzunari buruzko hitzaldi bat ematen. Nire jardunari amaiera emateko, Antton Valverderen *Lauaxeta* diskoko *Agur Euzkadi* jarri nien entzuleei. Poemaren bertsio alemana eskuetan zutela segitu zuen jendeak kantua. Publikoari begira egin nuen musika iraun zuen denbora. Hunkituta ikusten nuen entzule asko, baina berrogeita hamar bat urteko emakume dotore baten aurpegi hieratikokoan iltzatu zitzaizkidan begiak. Alemanen hoztasunaren topikoari egotzi nion hieratikotasuna. Pasatu zitzaidan burutik, baita ere, nire jardunak ez ote zuen emakumea batere bete.

Valverderen kantua bukatu zenean, hitzaldia ixteko hitzak esan eta oholtzatik jaitsi nintzen. Moderatzaileak bidea eman zion hurrengo parte-hartzaileari.

Aurpegi hieratikoko emakumea zutitu egin zen.

Nire memoriak onik dirauen bitartean gordeko dut memorian emakume hark eskaini zigun testigantza.

Behin, Unibertsitatean Arte Ederrak ikasten ari zen garaian –70eko hamarkadaren hasiera zen–, Picassoren *Guernicaren* erreprodukzio bat erosi omen zuen emakumeak, bere logelan jartzeko. Ilundu zuenean, aita agertu zitzaion, gauero bezala, gabon esatera. Aita-alabak harreman gozoa zuten, batere pitzadurarik gabea, eta gau hartan ere aitak hitz goxo batzuk esan zizkion alabari. Baina musu ematera zihoan unean, aurpegiera okertu zitzaion eta gaiztotu. Hiraz gorri, *Guernicaren* erreprodukzioa erauzi zuen hormatik eta hantxe bertan mila puska egin. Neskak ez baitzion sekula halako erreakziorik ezagutu, zer gertatzen zen jakin nahi izan zuen. Zakarkeriaren bat erantzun zion aitak. Gero, ateari danbateko bortitza eman eta logelatik alde egin zuen.

Biharamunean, amarekin hitz egin zuen neskak. Ez zion ezer atera. Jardun zuen familiartekoei galdezka ere. Alferrik. Aitaren beraganako jarrera gero eta izoztuagoa zela, ez zuen besterik ateratzen. Txiripaz eta etxetik kanpo jakin zuen egia: Gernika bonbardatu zuen eskuadrillako buruetako bat izan zen aita. Sekula ez zuen, ordea, hitzik esan hartaz: bere etxe-jaun eta aita eredugarri baten portaera barruan sartzen zen familiako bizitzatik kanpo uztea gerra. Aita lotsatuta egongo zela, damututa, oroiaren minak lotuta egongo zela pentsatu zuen alabak. Pentsatu zuen, halaber, oroitzapenen latzak behar zuela izan aitak izandako erreakzio bortitzaren kausa. Gertatutakoak ahaztu, eta aitarengana jo zuen egia deskubritu zuela esatera. Egiak uste duguna baino ertz gehiago izaten dituela ohartu zen alaba: aita harro zegoen *razzia* hartan parte hartu izanaz.

Alaba ez zen gehiago etxera itzuli.

Publikoaren lehendabiziko ilaran zeuden hiru emakume adinekori aurrez aurre begiraturik bukatu zuen emakumeak jarduna:

– Gaur da inoren aurrean aitorpen hau egiten dudan lehendabiziko aldia. Zor nizu.

Lauaxetaren kantua jarri nienean bezalako aurpegi hieratiko bera zuen emakumeak.

Negar egiteko gogoari eusten ari zen.

Aurrean zeuzkan hiru emakume haiek gernikarrak ziren. Hamar bat urte zituzten bonbardaketa sufritu zuten egunean. Aitaren ibileren lekukotza eman zuen emakume alemana ez zen artean jaio.

**Badago Berlingo egonaldi hartatik** gogoan iltzatuta geratu zaidan beste oroitzapen bat. Kongresuaren amaiera ospatzeko, afaltzera eraman gintuzten aintziratxo baten ondoan zegoen jatetxe batera (ez zen pilotuaren alaba etorri, ez dut harrezkero haren berririk izan). Anfitrioi alemanez gainera, beste hainbat lurraldetako jendea bildu ginen afaltzera: euskaldunak, txiletarrak, asturiar bat, frantsesen bat... Kafeak-eta hartu ondoren, han geundenon herrialde bakoitzeko errepertorio txiki tipikoena kantatzeari ekin genion segidan. *Lili Marlen* ere kantatu genuen. Alemanek, ordea, ez zuten ahorik zabaldu. Horren zergatiak galdetu nion anfitrioiari. Ahotsa eta begirada, biak ilundu zitzaizkion emakumeari:

– Naziek gure herri kantagintza tradizionala bereganatu zuten, eta beren ideologiaren zerbitzuan manipulatu eta erabili. Lili Marlen kantatzen hasiko banintz...

Isilik geratu zen.

– Kantatzen hasiko bazina, zer?

- Gure kantu tradizional onenek nazismoak erantsi zizkien konnotazio parasi-toekin segitzen dute oraindik. Uholdeetako urek bezala memoriak ere denbora behar du bere ubidera itzultzeko. Nire belaunaldiak ez du Lili Marlen konnotazio nazirik gabe kantatzeko eguna ezagutuko.

**Frankismoaren azken** urteetako gure suspertzetik gehien estimatzen dudana itxaropena da: etorkizun askeago bat lortuko genuela uste genuen. Begiratzen ditut orduko koadernoak, eta garai hartan idazten nituen apunтетxo, hausnarke-ta eta obserbazio askoren baikortasunak harritzen nau. Zer egina, zeri heldua, nondik ibilia duen baten segurtasunaz gainera, nora joan nahi duen garbi duela-koan bizi den baten esperantza transmititzen dute apunteok. Eta baikortasun hori ez zen nirea bakarrik. Konbentzituta geunden mundu itxi haren bihotzean zabaltzen ari ginen begirada berriak ez zuela tatxarik. Librea zela eta libre egiten gintuela.

Erraza geneukan: gu izango ginen etorkizunaren emaginak. Gure esperantzak, ordea, lokatzezkoak zituen oinak, eta ez genuen asmatu. Gure bidea zela-koan zuzen bakarra, zabu gaizto baten zepoak harrapatu gintuen: zuri ala beltz, gurekin ala gure kontra, leial eta traidore, fusilak ala kateak eskemaren tranpan erori ginen. Dogmatikoak (bihurtu) ginen. Horixe (bihurtu) ginen, dogmatikoak, zurrumbilo haren bihotzean, eta ez ginen ohartzen berrogei urteko diktadurak ger-men totalitarioak inokulatu zizkigula.

Demokrazia nahi omen genuen. Ezin da, ordea, demokrazia bermatu kultura demokratikoa landu gabe. Estrategia politikoek ezin dute ordena moralala hondatu eta ezta geroko gerotara atzeratu ere: ez dago gutxiengo moral adosturik gabe aurrera egingo duen herririk.

**Krimen perfektua** espresioak krimenen eta enigma kriminalen literaturara garamatza. Gorrotatzen duzun edo deserosoa zaizun hori nola paretik kendu arrastorik utzi gabe, obsesio hori izaten dute generoko liburu onenek motore eta giltza. Eta lege naturalaren berezko zentzu onak eskatzen baitu kriminalak ezin duela ihes egin zigorrik gabe, literatura horrek behin eta berriro esaten digu ez dagoela krimen perfekturik (Ni mutil koskorra nintzela, irratiak *El criminal nunca gana* izeneko programa bat ematen zuen). Han edo hemen, kriminalak beti uzten ditu arrastoak. Handik edo hemendik, legeak beti aurkitzen du kriminala harrapatzeko harien bat.

Literatura krimen perfektuaren ezinaz ari denean, moralizatzen ari da. Beste-rik esaten digu, ordea, historiak: badaude egon krimen perfektu askoak. Horren lekuko da Gerra Zibileko biktimeen gainean Espainiak oraindik ere zabaltzen duen isiltasunezko izara tzarra. Horren lekuko da gure egunetako hemengo indarkeriak eragindako biktimei ematen diegun tratua. Ez, ez naiz gure azken urteotako indarkeriari bizkarra erakutsi zale. Areago: indarkeria horri aurpegiz aurpegi begi-ratzen diogunean –alde gogaikarrienei ere aurrez aurre begiratzeke gai izango garen egunean–, irtenbide baten atarian gaudela sinetsiko dut.

Alde gogaikarrienei aurrez aurre begiratzen ikastea ere berrikuntza da. Eta ez nolana hiko.

**Ezer ez da xaloa**, egiten dugun guztiak gure baloreen edo balore faltaren ispilu-lana egiten du. Begira diezaiozun, adibidez, kaleari. Erreparatu zu bizi zaren kale horri.

**Jainkoak eztezala nahi** Bilboko karrika bati  
nire izenik eman dezaiotela.  
Eztut nahi bizargile hordi batek esan dezala:  
Ni Arestin bizi naiz, anaiaren  
koinata nagusiarekin. Badakizu. Maingua.

Baina etorri ziren garai berriak, eta Arestiren izena ugaltu zen, ez karriketan bakarrik, ez Bilbon soilik. Grazia egiten dit pentsatzen hasteak zenbat bizargile hordi eta koinata maingua ugaltu ote den haren izena daramaten kale, kultur etxe, literatur sarien inguruetan.

Nolana ere den: eszeptikoek diote nahiz kaleen izenak aldatu, kaleak berak ez direla aldatzen. Ez nago hain seguru. Proust-ek zioen bezala, “eraikuntzak, kaleak, bideak, tamalez, urteak bezain igarokorrak dira”. Igarokorrak beren izenak ere. Eta igarokorrak haietan bizi garenok.

Kaleak hiritarren elkarbizitarako guneak baitira, espazioon izenak ez dira izendapen xalo tolesgabeak: markatu egiten dute espazioaren izaera. Bi izen eza-gutu dizkiot ni bizi naizen kaleari, Ramiro de Maeztu eta Don Leandro (Zarauzko mediku baten izena). Kaleak berdin-berdina izaten segitzen du bere itxura fisikokan, baina ez du, inondik ere, garai bateko itxura moral bera. Izenek bat edo bestea signifikatzen dute; gisa bateko zein besteko esanahiz markatzen dituzte tokiak; orainak iraganari gogoratzen eta aitortzen diona dute jasotzen.

Kaleak, *lieu de la memoire* gisa kontsideraturik. Ni bizi naizen kalea txiki-txikia da, baina *lieu de la memoire* bat da. Aipatu dudana kalearen izen aldaketaz batera, hona hainbat elementu adierazgarri: bertan dauden etxe aurren izenak gaztelaniaz eta euskaraz daude. Etxeon arkitektura hemengo tradizionala da kasu batzuetan; badira Zarautza uda pasatzera joaten ziren aristokratek Ingalaterratik inportatutako arkitekturaren arrastoak ere; etxe berrienak *eklektikoak* dei ditzakegun trazakoak dira. Tokia lasaia da, bakarti samarra, eta horrek guztiak bertan bizi garenon estatusaren berri eman lezake. Gure parean zegoen txaletean –oraintxe bota dute– Belgikako kontsul bat bizi zen, eta nazien kontrako erresistenteak biltzen omen ziren bertan; etxetik hurbil, Francoren arkitekto kutuna izandako gizona bizi zen... Ni bizi naizen etxea gure aitak egina da, Lizardiren arreba bati baratza bateko lur-saila erosi ondoren: huntzak hartutako horma zahar batek inguratzen zuen baratza hura, eta ilusio handia egiten dit Asaba Zaharren baratzean bizi naizela pentsatzeak... Alboko kaleak *Mandabide* izena du; auzoak, berriz, *Mendilauta*, Salvatore Mitxelenak bere goitizentzat aukeratu zuen izena...

Ni bizi naizen kalea oso-oso txikia da, baina ezin ukatu *lieu de la memoire* denik...

**Itsasontziek uhara** uzten dute atzean. Gure monumentu, biblioteka, izen-abizenak, hizkuntza(k), lantokiak, kaleak, jantziak, festak eta kirolak memoriaren leku, memoriaren bozgorailu, memoriaren uhara dira: iraganekoen –munduratu gintuztenen– mundualdia gogorarazten dizkigute eta haietatik proiektatzen dugu etorkizuna.

**Gazte nintzela**, Becketten obra bat, *Azkeneko zinta* izeneko bakarrizketa luzea, antzeztu nuen, nire izeba bati kendu nion *Grundig* markako magnetofoi handi baten aurrean.

Krapp izeneko agure bat, noiz hilko zain. Zinta bat entzuten ari da, urte batzuk lehenago grabatu zituen oroitzapen, ohar eta obserbazioekin. Entzuten ari dena ez du, ordea, gustuko. Beste zinta bat grabatzen hasten da aurreko hartan esandakoak zuzenduz.

Bizitzan ez da, ordea, halako aukerarik izaten eta egiten dugun guztiak gure izaera moralaren arrastoak uzten ditu bazter guztietan.